

# Kilometroak 95

## Zurea eta Nirea
## Euskararen Bidea

Argiak ura urrezta.
Heldu da Ikastolen festa:
aurten ere izan dadila
jendez ta posez gainezka.

Ez gaitu izutzen geroak.
Gure bihotzak, beroak.
Jaso ditzala Donostian
euskarak bere hegoak!

ZUREA ETA NIREA
EUSKARAREN BIDEA

Hogei ken bat, hemeretzi.
Ez dezagun inoiz etsi:
euskarak behar gaitu eta
euskarari zintzo eutsi.

Basoan eder haritza.
Ez dezagun, ez, gal hitza!
Ate orotara moldatu
gure hizkuntzaren giltza.

ZUREA ETA NIREA
EUSKARAREN BIDEA

Erleak gozo eztia.
Kito hemen abestia.
Gora gure Kilometroak
eta gora Donostia.

ZUREA ETA NIREA
EUSKARAREN BIDEA

Trikitixa: Izaro Garmendia
Bateria: Mitxel Longaron
Kitarra elektrikoa: Gurutz Bikuña
Bajoa: Sindo Mellado
Ahotsak: Herri Ametsa eta
Zurriolako haurrak
Xabier Saldias